

## zuzendariari

(0034) 943 300 222

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

## Zer da biolentzia, Ibarretxe?

Edu Zabala Garagartza (irakaslea)

Ibarretxek bere hauteskunde adierazpen batzuetan esan zuen: «Ez dut uste kale borrokarekin eta biolentziarekin ezer eraiki daitekeenik. Herria biolentziaren aurka izanik bakarrik eraiki daiteke».

Hainbat hitz, hainbeste erabili, entzutearen ondorioz, beren esanahia galdu, desitxuratu edo guztiz bestelako bihurtzen dira, hala nola *bake, demokrazia, biolentzia*.

Hel diezaiozun azken horri, *biolentziari*. Ibarretxek eta beste konstituzionalistek hitz hori ekimen eta sektore politiko jakin bati leporatzen diote, hots, kale borroka, atentatuak, ETA zein beraien esanetara erakunde horren akolitoa den Ezker Abertzaleari.

Nik gogora ekarri nahiko nuke, nahiz eta denok ezagutu, beste biolentzia, «biolentzia zuria», zikintzen ez duena, urrutitik diseinatzen dena, pistolarik gabekoa, egunkarietan letra handiarekin agertzen ez dena, baina egunero hainbat familia markatzen duena, marjinazioa, porrota, zapalketa, ukapena, lan istripuak sortzen duena, erantzulerik ez omen duena...

Ez al da biolentzia banketxeek lau haizetara urte hasieran harrotasunez, aurpegiratzen dizkiguten irabaziak, jakinean gure patriketatik ari direla zurruputzen?? (hipoteka, kreditu, komisio...).

Ez al da biolentzia enpresarien utzikeriagatik, formakuntza ezagatik, segurtasun neurrien faltagatik egunero hiltzen diren langileen egoera??

Ez al da biolentzia preso eta senideei egunero, bai legez, bai osasun arazoak direla medio, ukatzen zaizkien eskubide unibertsalak??

Eta Ibarretxek kudeatu nahi duen «baratze baskongadotik» ateratzen bagara, jo dezakegu biolentziatzat euskararen ilegaltasuna Ipar Euskal Herrian, euskararen kontrako etengabeko eraso bortitzak Nafarroa Garaian,



## galdeiozu...

**PPren inguruko komunikabide publiko eta pribatuek duten jarrera ikusita, alderdi guztiak beren mezua helarazteko aukera bera dutela uste duzu?**

Andoni Oiarbide (Legorreta)

Ez. Baina ez PP edo PSOEek lehetasunezko tratua dutelako zuk aipatutako medio horietan, hori zalantzan jartzen baitut. Politikari nazionalistak erraz hel daitezke herritarrengana, bizilagunak agurtu ditzakete kalean, hauteskunde propaganda bana dezakete azokan, edo zerbait har dezakete tabernan. Guk, ordea, galarazia dugu zenbait lekutarako sarrera, eta, gainera, bizkartzainez inguratuta norabait sartzen bagara, izugarriko iskanbila sortzen dugu inguruan. Hori hala da, gizarte honetan badagoelako jendea bere kabuz erabaki duena nor ibil daitekeen libre kalean eta nor ez. Gu gaude bigarren talde horretan. Begira: prest nengoke egunkarietako azal eta telebista eta irratietako minutu guztiak emateko kalean lasai paseatzearen truke; plazara joan eta herritarrengana hurbildu eta pentsatzen dudana esateko. Horrexegatik, kanpainan guztiak ez gara abiatu baldintza beretan.



MARIA SAN GIL

PPko Gipuzkoako zerrendaburua



## EAEko hauteskundeak

Maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoetako hautagaiekin jarraituz, maiatzaren 1etik aurrera **Juan Jose Ibarretxe • EAJ-EAko lehendakari gaia** izango dugu. Bidali zure galderak ordurako.

Zuberoaren garapen ezaren ondorioz emigratu beharra, herri bezala baliatze-ko itxaropen iluna, Parisera begira egon beharra... Nafarroa Garaiko Erronkarin, adibidez, gertatzen ari den populazio hustuketa, eskualde baten izaera ekonomiko, kulturalaren ukapena bultzatuz eta hiriburuetako burges eskuindarren atsedenekua bihurtzea...??

Luzeegia da biolentziaren, biolentzia guztien zerrenda, eta Ibarretxek eta bere alderdiak, bere koalizioak, kontsekuente izan nahi badu(te) adierazitakoarekin

—«Herria biolentziaren aurka izanik bakarrik eraiki daiteke»—, lan galanta, erraldoia izan dezake, lan galanta izan daiteke porrotaren kudeatzaile izan den lehendakariorde batentzat, baldin eta ez bazaio gailentzen hauteskundeetan beste proiektu *españolazo*-agoa.

Arazoa ez da norekin gobernatu nahi duzun; arazoa da zertarako, norentzat gobernatu nahi duzun...

Zer portzentaia betetzen du Euskal Herriak, autonomista eta konstituzionalisten buruetan? Erantzuna oraingoz eta zorritzarez nahiko ezaguna da.

## Euskadiko alkateei

Fabian Laespada (Bakearen Aldeko Koordinakundeko kidea)

Herritar bat naiz, eta nazkatuta nago hiriko hormak irudi eta esaldiez beteta ikusteaz; are gehiago, islatutakoak irainak, dianak eta bestelako lelokeriak badira. Pertsona totalitario eta edukazio demokratikorik gabeko batzuek guztioi zuzentzen dizkigute hormirudi horiek.

Baina bakerako bidea egin nahi badugu, bakeak izan behar du bitartekoa. Zuek leku pribilegiatuan zaudete, herritar guztien babesa duzue, eta urrats garrantzitsua egin dezakezue: edozeinen bizia eta askatasuna arriskuan jartzen duten pintadak ezabatzeko agindua eman dezakezue, eta gure oinarriko eskubideak ukatzea besterik ez dakitenei laguntzen dieten mezuak kentzekoa.

Ezinezkoa den ezer ez dut eskatzen, eta korapilatsua den ezer ere ez. Egin ezazue, eta gure gizartearen osasun morala hobetu egingo da.

## Ondoen adaptatuenak kultura klasikoan

Roman Garmendia • SORALUZE

Nire ustez gizakiarik perfektuena edozein kulturatan ondo adaptatzen dena da, eta sozialismoarena epe luzerako denez, pentsatzen dut ni ere adaptatu beharko nintzatekeela kultura klasiko honetara, ahalik eta diru gehien eginez, horrela errazago lortuko baintuzke bai lagunak, bai familia bat formatzea, bai zahar aro lasaiago bat edukitzea, eta guzti hori bitzita alaitzen eta errazago egiten duena, ezen azken batean adaptatze kontua da dena garaian garaiko errealitateei. Besterik esaten didana ez du hori pentsatzen bere baitan. Kultura klasikoan lagunik ez baitago, baina bai bere barnean asmatua dago jabego pribatua, dirua eta propietateak metatzeko moduak posibilitatzen dituena, eta horiek seguritate eta lasaitasun iturri dira kultura honetan.

## montxo

